AURREKONTU PUBLIKOAK KLIMA-IKUSPEGIAREKIN: DIRUARI JARRAITU BENETAKO ANBIZIOA EZAGUTZEKO

Posted on 08/10/2026 by Aitor Mingo

Klima-planek azaltzen dute administrazio batek nora egin nahi duen aurrera. Aurrekontuek erakusten dute noraino dagoen prest hori egiteko. Euskadiko 1/2024 Legeak ikuspegi hori kontu publikoetan txertatzen du, eta aukera bat zabaltzen du Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek, udalek eta haien sektore publikoko erakundeek beren klima-konpromisoak erabaki ekonomiko zehatzekin lotzeko.

Klima-konpromisotik aurrekontu-erabakira

Administrazioek ikasi dute neutraltasun klimatikoaz, erresilientziaz, mugikortasun jasangarriaz edo trantsizio energetikoaz hitz egiten. Kontzeptu horiek estrategietan, planetan eta adierazpen instituzionaletan agertzen dira. Hala ere, eraldaketa ez da gertatzen norabidea iragartzen duten dokumentuetan, baizik eta baliabideak esleitzen dituzten erabakietan: zer finantzatzen den, zenbat bideratzen den, zenbat denboraz eta zer jarduketak uzten dioten laguntza jasotzeari.

Horregatik, erakunde baten benetako klima-anbizioa ezagutu nahi badugu, komeni da diruari jarraitzea.

Klima-ikuspegia duen aurrekontu bat ez da ingurumen-sailaren aurrekontu espezifiko bat. Ez da, ezta ere, «berde», «jasangarri» edo «energetiko» bezalako hitzak dituzten partidak batzea. Kontu publikoen multzoa aztertzea esan nahi du, jakiteko zer gastuk laguntzen duten isuriak edo zaurgarritasunak murrizten, zeinek duten efektu neutroa eta zeinek urrun gaitzaketen klima-helburuetatik.

Begirada horrek galdera aldatzen du. Jada ez da soilik jakitea zenbat gastatzen den klima-ekintzan, baizik eta egiaztatzea aurrekontua, bere osotasunean, iragartzen den trantsizioarekin koherentea den.

1/2024 Legea: administrazio-mailak zeharkatzen dituen erantzukizuna

Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak urrats garrantzitsua egiten du norabide horretan. Haren 61.1 artikuluak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuan ikuspegi energetikoa eta klimatikoa txertatu beharko dela, eta aurrekontu horien % 2,5 klima-ekintzako neurriak hartzera bideratu beharko dela.

Ehuneko hori, beraz, autonomia-erkidegoko Aurrekontu Orokorrei aplikatzen zaie, ez automatikoki euskal administrazio guztienei. Euskadiko gainerako administrazio publikoei dagokienez, artikulu

berak xedatzen du ikuspegi hori beren aurrekontuetan txertatzea sustatuko dutela, batez ere diseinu-fasean. Bestalde, 61.2 artikuluak aurreikusten du jarraibideak ezartzea klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko inpaktu positiboa duten aurrekontu-jarduketak identifikatu, landu, jarraitu eta ebaluatzeko.

Intentsitate juridikoa ez da berdina kasu guztietan: legeak betebehar espresua eta ehuneko zehatz bat ezartzen ditu Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretarako; gainerako administrazioentzat, berriz, ikuspegi energetikoa eta klimatikoa sustatzeko eta txertatzeko agindua ematen du. Baina akats bat litzateke alde hori itxaroteko gonbidapen gisa interpretatzea.

Lurralde historikoek eta toki-erakundeek energia, klima-aldaketaren arintzea eta hartara egokitzea txertatu behar dituzte beren sektore- eta lurralde-plangintzan. Gainera, legearen 18. artikuluak xedatzen du lurralde historikoek eta 5.000 biztanletik gorako udalerriek klima- eta energia-planak onartu beharko dituztela. Aurrekontu-zuzkidura nahikorik gabeko plan bat asmo onen zerrenda bihurtzeko arriskuan dago.

Gainera, klima-ekintza eskumen desberdinen artean banatzen da. Eusko Jaurlaritzak energia-politikei, etxebizitzari, industriari, osasunari edo garraioari buruz erabakitzen du; foru aldundiek arlo erabakigarriak kudeatzen dituzte, hala nola errepideak, natura-guneak, fiskalitatea edo udalei emandako laguntza; eta udalek espazio publikoan, eguneroko mugikortasunean, uretan, hondakinetan, eraikin eta ekipamenduetan edo beroaren eta uholdeen aurkako babesean esku hartzen dute.

Maila batek ere ez du bere kabuz trantsizioaren aurrekontu osoa. Guztiek kudeatzen dute haren zati bat.

Etiketatzea abiapuntua da, ez emaitza

Klima-etiketatzeari esker, partidak sailka daitezke arintzearekin eta egokitzapenarekin duten loturaren arabera. Euskadiko Aurrekontu Orokorretan ikuspegi energetikoa eta klimatikoa txertatzeko Eskuliburuak (esteka) honako gastu hauek bereizten ditu: aldekoak, partzialki aldekoak, partzialki kontrakoak, kontrakoak, mistoak eta neutroak edo zehaztu gabeak.

Sailkapen horrek irakurketa bitarra saihesten du eta onartzen du inbertsio batek ondorio desberdinak sor ditzakeela. Azpiegitura berri batek, adibidez, zerbitzu publiko bat hobetu dezake eta, aldi berean, isuriak handitu, materialak kontsumitu, lurzorua okupatu edo mugikortasun-eredu jakin batzuk finkatu.

Aurrerapen metodologikoa garrantzitsua da, ez baitie partida positiboei bakarrik begiratzen. Gastu bateraezina edo potentzialki kontrakoa ikusaraztea inbertsio berdeak zenbatzea bezain beharrezkoa da. Ez du askorako balio birgaitze energetikorako laguntzak handitzeak, beste erabaki batzuek hamarkadetarako finkatzen badute automobilaren mende dagoen edo beroarekiko eta uholdeekiko bereziki zaurgarria den lurralde-eredu bat.

Baina etiketatzea ez da nahikoa. Aldekotzat sailkatutako partida batek ez du berez bermatzen isurien edo arriskuen benetako murrizketa. Gaizki gauzatuta egon daiteke, eskuzabalegia den balorazio bati erantzun diezaioke edo, nolanahi ere, egingo zen jarduketa bat finantza dezake.

Badago, halaber, gastu bera bi aldiz zenbatzeko, onartutako aurrekontua azkenean gauzatutakoarekin nahasteko edo partida oso bati zati bati bakarrik dagokion klima-onura egozteko arriskua.

Etiketatzeak ebaluaziora eraman behar du eta, batez ere, erabakira. Aurrekontua itxi ondoren partidak koloreztatzeko bakarrik balio badu, argazki ordenatuagoa emango du, baina ez du norabidea aldatuko. Haren benetako potentziala aurrekontu-zikloaren hasieran aplikatzen denean agertzen da, eta baliabideak esleitu aurretik alternatibak alderatzeko aukera ematen duenean.

Bost urrats kontuak klima-politika bihurtzeko

Lehen urratsa **irizpide komunak definitzea** da. Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta toki-erakundeek kategoria konparagarriak, gastuak haztatzeko arauak eta etiketa bakoitzaren justifikazio trazagarria behar dituzte. Autonomia-erkidegoko metodologiak oinarri baliagarria eskaintzen du, erakunde bakoitzaren eskumen eta gaitasunetara egoki daitekeena, elkarren artean bateraezinak diren sistemak eraiki gabe.

Bigarrena **partida bakoitza helburu neurgarriekin lotzea** da. Ez da nahikoa adieraztea inbertsio batek egokitzapenari laguntzen diola: azaldu behar da zer arrisku murrizten duen, zer biztanleriaren edo lurraldearen gainean jarduten duen eta zer adierazleren bidez egiaztatuko den emaitza.

Hirugarrena **inpaktu negatiboak ere berrikustea** da. Begirada klimatiko oso batek isuriak, esposizioa edo zaurgarritasuna handitzen dituzten partidak detektatu behar ditu, eta baloratu birdiseinatu, baldintzatu edo ordeztu daitezkeen.

Laugarrena **gauzatzearen jarraipena egitea** da. Aurreikusitako gastua argitaratzea ez da nahikoa, gero ez bada jakiten zenbat gauzatu den ezta zer ondorio izan dituen ere. Trazabilitateak aurrekontuarekin batera joan behar du, diseinutik likidaziora arte.

Bosgarrena **klima-justizia txertatzea** da. Trantsiziora bideratutako euro batek ez du balio publiko bera sortzen edozein lekutan. Ebaluazioak erakutsi behar du nork jasotzen dituen onurak, nork jasaten dituen kostuak eta baliabideak auzo, udalerri, sektore eta etxe zaurgarrienetara iristen diren.

Udalerri txikientzat zaila izan daiteke zeregin hori, betebehar tekniko berri eta isolatu gisa planteatzen bada. Hor ezinbesteko zeregina dute aldundiek, eskualdeek eta Eusko Jaurlaritzak berak: metodologiak, gaikuntza, tresna partekatuak eta laguntza ematea, begirada klimatikoa txertatzea udal-plantillaren tamainaren mende egon ez dadin.

Aurrekontuak egitea trantsizioa aukeratzea da

1/2024 Legeak aukera bat zabaltzen du klima-politika sakabanatuak zenbatzetik ekintza publikoaren multzoaren koherentzia ekonomikoa ebaluatzera igarotzeko. % 2,5 hori betebehar zehatza da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrentzat, baina ez luke sabai bihurtu behar, ezta anbizioaren adierazle bakarra ere. Administrazio batek ehunekoa bete dezake eta, aldi

berean, bere klima-helburuen aurkako gastuak mantendu.

Foru aldundientzat, udalentzat eta gainerako euskal administrazio publikoentzat, bidea autonomia-erkidegoko metodologia beren eskumen eta gaitasunetara egokitzearekin has daiteke. Etiketatzea, inpaktuen ebaluazioa, gauzatzearen jarraipena eta partidak beren klima-planekin lotzea pixkanaka txertatuz gero, aurrekontu koherenteagoetarantz, gardenagoetarantz eta konparagarriagoetarantz aurrera egin ahal izango litzateke.

Kontua ez da soilik zenbat diruk daraman klima-etiketa bat. Garrantzitsua da jakitea gastu horrek zer eraldatzen duen, zer inpaktu saihesten dituen, nola banatzen den eta zer aurrekontu-erabaki birbideratu behar diren. Izan ere, planek asmoak adierazten dituzte, baina aurrekontuek lehentasunak ezartzen dituzte. Eta diruari jarraitzen zaionean uzten dio klima-trantsizioak promesa izateari, politika publiko bihurtzeko.